

Istripu kardiobaskularren eta zerebrobaskularren prebentzioa, zahartze osasungarrirako

CIC biomaGUNEK PRECERVAS proiektua jarri du abian, Jesús Ruiz Cabello Ikerbasqueko irakaslearen gidaritzapean. Eusko Jaurlaritzak finantzatu du proiektua, I+Gko Zeharkako Lankidetzaren Proiektu Traktoreak (Euskadi 2030 ZTBP) diseinatzeko laguntzen programako zahartze osasungarrirako ekimen traktorearen esparruan. Istripu kardiobaskularrak eta zerebrobaskularrak prebenitzeko helburua du ikerketa-proiektuak, eta parte-hartzaile hauek ditu: Biogipuzkoa eta Biobizkaia osasun-institutuak, Vicomtech, Tecnalía, BCBL, Asparia Glycomics SL, Ammma, Aubixa Fundazioa eta Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoa S.Coop. irakaskuntza-zentroak.

Ruiz-Cabellok, CIC biomaGUNEko [biomarkatzaile molekular eta funtzionalen](#) taldeko ikertzaile nagusiak, adierazi du proiektuaren helburua oinarritzko premia honi erantzutea dela: “diziplina arteko lan kolaboratibo baten bidez, zahartze osasungarriari buruzko gure ezagutza areagotzen jarraitu, faktore genetiko, fisiologiko, anatomiko, funtzional eta kognitiboak ingurumeneko eta bizimoduko beste faktore batzuekin lotuz (batez ere, dieta eta ariketa), azken xede honekin: bihotz-osasuna eta garun-osasuna hobetzea, dietaren eta ariketa fisikoaren esparruan berritzaileak diren soluzioak erabiliz, eta, hala badagokio, modu kontrolatu eta doian emanez”.

Hori lortzeko, proiektu honetan parte hartzen duten erakundeek zenbait helburu finkatu dituzte dietaren, ariketaren eta genetikaren arloetan. Dietari dagokionez, proiektuaren xedea da diana molekular espezifikotara bideratuko diren mantenu-gaien eta sendagai berrien erregimenak garatzea: “Besteak beste, aztertu nahi dugu ea elikadura-osagarri jakin bat emateko aukerarik baden, elikadura orekatu eta osasungarri bati txertatua, adineko pertsonen metabolismoa hobetzeko. Gure ustez, molekula hori errefortzu-osagarri gisa dieta osasungarri batekin batera emateak dieta hipokaloriko baten edo aldizkako baraualdi baten antzeko eragina izan dezake. Ereduen bidez lortutako emaitzei esker, badakigu gizakien bizitza luzatzen duela eta osasuntsu zahartzen laguntzen diela”, adierazi du Ruiz-Cabellok.

Ariketari dagokionez, helburua da bihotz-biriketako errehabilitazioari edo errehabilitazio metabolikoari lotutako hobekuntza funtzionala ulertzea, honelako gaixo kronikoen kasuan: arnasketa arazoaren edo arazo kardiobaskularren ondorioz egoera fisiko eta funtzionalean nolabaiteko narriadura izan dutenak. Ikertzaileak azaldu duenez, proiektuak irudi-teknika eta biomarkatzaileak bilatzeko teknika berriak ditu. Oso-oso inbasio txikiko monitorizazio bat erabiliko da, gaitasun fisikoaren eta eraginkortasun metaboliko mitokondrialaren ebaluazioa egitean eskuratutako bioseinaleak erabiltzen dituen. Beren borondatez errekupeazio funtzionaleko proba batzuetan parte hartzen duten pertsona batzuei egingo zaizkie ebaluazio horiek, ariketa fisiko bidezko taldeko errehabilitazio-plan batean parte hartu aurretik eta ondoren”.

Azkenik, genetikaren esparruan, azterketa genetiko bat egitea aurreikusitako da, gaixotasun kardiometabolikoen eta neurodegeneratiboaren aldaera genetikoak eta gene kausalak zehazteko. Izan ere, bi horiek dira munduan lehenengo heriotza-kausa, bai eta zahartzaroan bizi-kalitatea murrizten duen arrazoi nagusia ere. Dioenez, “Azterlan horrek aukera emango luke Euskal Autonomia Erkidegoko helduetan arrisku-indize bat sortzeko, eta horrek zuzeneko aplikazioa izango luke medikuntza pertsonalizatua eta prebentziozkoan”.

PRECERVAS proiekturako, FOODICINE izeneko beste proiektu batean lortutako ondorioak baliatuko dira, eta alderantziz. FOODICINE proiektua BASQUE FOOD CLUSTERek, Tecnaliak eta Bioarabak garatu dute, eta Eusko Jaurlaritzak finantzatu du hura ere. Proiektu horren helburua da elikagaiak eta nutrizio-estrategiak garatzeko behar den ezagutza eskuratzea, gaixotasunak prebenitzen laguntzeko eta luze, kalitatez eta independentziaz bizitzea ahalbidetzeko.